


Sumendia

Zenbait mendi lurraren barrutik datozen materialez sortu dira: sumendiak.

Zer dago lurraren barruan?




Lurrázala:
gu honen gainean bizi gara

Mantua
Zati bat (magma), haitz galdatuak eta gasek osatzen dute. Beronen tenperatura, 2.500° da.

Lurraren muina

Sumendi baten erupzioa



Magma lurrazalean zirritu bat topatzen duenean, hortik irristatu egiten da. Lurzoruaren azpian, zenbait kilometrora, sekulako **magma-biltegi handi bat** dago.



Gero, gasak bultza eginda, magma igotzen da **tximiniatik** gora eta, ondoren...



erupzioa dator: haitz galdatuak (laba) eta gasa, sumendiaren **ahotik** kanporatzen dira. Erupzioak minuturen batzuk iraun ditzake, edota... urteak!

Non daude sumendiak?

Mundu osoan, baita Hegoburuan ere! Milaka sumendi dago, baina seiehun besterik ez daude indarrean. Euskal Herrian ez dugu, zorionez, sumendirik. Indarrean dauden sumendirik arriskutsuenak, Ozeano Barearen inguruan, batez ere, aurkitzen dira. Horregatik, inguru horri "suzko gerrikoa" esaten zaio.

Munduko mapan, 46. orrialdean, ikus non kokatzen den Ozeano Barea.

Errautsez eta kez osaturiko laino bat irteten da noizbehinka.


Laba, likidoa edo oretsua izan daiteke.

Laba oretsua, poliki-poliki jaisten da sumenditik behera; leherketa batek bloketan zati dezake edota lau haizetara jaurtitzen dituen zati txikiagotan (errautsak).

Laba likidoa, ordea, erreka bat bezala jaisten da, bidean topatzen duen guztia errez.

Laba hozten denean, oso gogorra bihurtzen da.

Errautsak eta labak, landareek behar dituzten osagaiak dauzkate. Horregatik, nekazari askok sumendietako maldetan lantzen dute lurra, arriskutsua izan arren.



Sumendi ugari itsaspean
jaiotzen dira, eta
hautako batzuk
kanpora azaltzen
dira, irlak
osatuz.

Erupzio batek olatu erraldoi bat eragin dezake:
itsasikara.
Sumendi-azterlaria, sumendiak ikertzen
dituen jakintsua da.

Berau erupzioa noiz izango den
aurrikusten saiatzen da,
inguruan bizi diren pertsonak
handik lehenbailehen
aldegin dezaten.